

zuzendariari

(0034) 943 300 222

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.



zuzendariari@egunkaria.com



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain

Askatasuna ote?

Borxa Encinas • IRUN

Askatasuna omen dugu Euskal Herrian, ez omen dugu inolako zapalkuntzarik jasaten, halere, euskalduna izateak edo euskal ikurren bat eramateak bere ondorioak ditu txapel okerrean ondotik pasatuz gero, bai, trenera igo eta bertan txapel oker pare bat ikusten baduzu... kasu! Gorde euskarazko liburua, ezkutatu lauburua eta txukundu pixka bat zeure burua, bestela jai duzu. Nik ez nuen honela egin (hori guzia debekatua ez zegoelakoan, inozo ni!) eta trenean bertan karneta eskatu eta motxila (poltsiko guziak, karpeta eta liburua barne) miatu zizkidaten, hori bai! Ez adeitasunez, jarrera oldarkorrean eta mehatxuka baizik, ondoren Iruna hel-

du ginenean geltokian ordu laurden batez egonarazi ninduten karneta konprobatzen zutela (zenbakia ere ongi idatzi zuten badaezpada) eta deus arrarorik aurkitzen ez zutenez, bada, poltsikoetako gauza guziak ateratzeko esan, idunek eta belarritakoak arras ongi begiratu (*como tengas un 'bietan jarrai' te voy a meter un puro que te cagas* esan zidan) eta kaxeatu! Utzi ninduten. Azkenik, berriz ere mehatxatu eta iraindu ostean joateko agindu zidaten. Eskerrak aske bizi garen!

Josu Lartategiri erantzuna

Juan Velez Nuñez • IRUÑEA

Hau da hau! Igandero bezala, paseotxo

bat eman eta gure EUSKALDUNON EGUNKARIA hartu, irakurtzen hasi eta herriko izena ikusi! Ez! Ezin da! Berriro nire lagun Josu Lartategi. Pasa den astean, zeharka bada ere, erantzuna irakurri eta egintzat jo nuen. Baina ez!

Ez, Josu, zigorra ez duzu gustuko (erraten zenuen bezala) eta are nabaria goa gelditzen da asteburukoarekin. Zuk ikusi zenuen, baina hemen, Iruñean, ezagutzen nauten hemengo euskaldunek, nik bezala, «tonu parodiko eta esperpentikoa nahikoa argi zegoela» ez zuten ikusi. Hortaz, ez naiz bakarra.


Gonbidatzen zaitut nire erantzuna berriro irakurtzera. Ez nintzen zurekin sartu, adeitasunez eta errespetu osoz idatzi nizun. Honetan bai, banaiz baka-

rra. Eta ez naiz sartuko zure «purrusta-darekin». Ez zait ezer «trabatzen» (bakarrik euskarazko hitz batzuk, askoz ere gehiago ikasi behar dudalakoz) eta ez dut inolako «karga deskargatu» behar. Bakarra izaten jarraitzen dut.

«Mairu konplexu ezkutu eta beraz arrazista, akaso?» Gure amaren aita ijitoa zen, «máh negro qu'er carbón» eta aitona harro nago! Ijitoen odola daukat eta harro nago! «*En Andalucía sesihe puresa de sangre a loh abitante. Pa eyo deberán demohtrá quentre suh antepasaoh ay, ar menoh, un fenisio, un griego, doh romanoh, un godo, un hudío, doh hitanoh, treh moroh y treh crihtianoh.*»

«Shacoli» baten konpainian gelditzen naiz eta honoko kontu hau akitutzat jotzen dut.

montxo



galdeiozu... ?



KOLDO MARTINEZ

Nafarroako Ospitaleko Bioetika Batzordeko kidea

Osasun alorrean etika modan dagoela dirudi. Zergatik?

Ruben Oneca (Atarrabia)

Ez nuke nik etika modan dagoenik esango, funtsezko beharra dela baizik. Horretarako arrazoi ugari dago. Alde batetik azken 30 urteotan egin diren aurrerapenak (erreproduzio lagundua, diagnostiko prenatala, kode genetikoaren eza-gupena, erreanimazio kardiopulmonarra, txertaketak, etab.) medikuntzari inoiz pentsatu gabeko boterea eman diote; bestetik, eri gaudenean ere giza eskubideen jabe izaten jarraitzen dugula errebindikazioaren aldeko borroka berria (gogoan izan erien eskubideen lehen kodea 1969koa dela); baliabideak mugatuak direla eta non eta nola erabili behar diren finkatzeko dagoen beharra; eta azkenik, gizarte demokratikoe-tan (zorionez) ematen den aniztasun morala... Ez al da aski?

hirusta



Aitziber Perez de Karkamo

Bakearen Nobel sariak

Sinesgaitza. Harrigarria. Kafkak ere ez luke idazki makala izkribatuko horrelako egoera baten aurrean». Antzeko adierazpenak entzun izan ditut azken egunotan, gobernuz kanpoko bi erakundek Baltasar Garzon epailea Bakearen Nobel Sarirako proposatu dutela ezagutu ostean. Espainiako Auzitegi Nazionalako magistratua harroputz hutsa dela eta justizia ezartzeak baino handinahikeria pertsonalak gidatuta eta gobernu baten estrategiari erantzunez jarduten dela entzun izan dut eta bere erabaki askoren oinarri juridiko eza eta pertsona eta erakunde batzuekiko erakusten duen burugogorkeria ikusita, ez zaie arrazoi falta baieztapen hauen egileei.

Harritzeko gaitasuna horren urrututa ez banu, Garzon Bakearen sarirako izendatu izana egunkari honetako abenduaren 28ko albiste asmatutzat joko nuke. Ez nau ordea harritu, berarekin batera inperialismo liberalaren eta kolonialismo

modernoren lehendakaria den George Bush ere badagoela ikustean. Ez genuke harritu behar, iazko saria Nazio Batuen Erakundeko Idazkari Nagusiak eskuratu zuela jakinik. Ostera, galde diezaiegun Marokok indarrez menperatutako lurraldeetan bizi diren herririk gabeko saharatarrei ea Kofi Annanen trikimailu diplomatikoek bake-rik eraman duten lurralde okupatueta.

Kinielak 18/98 eta antzeko zenbakiak erakusten duen herrian ez dago bakearen laukia betetzerik. Disidentzia oro berdin ETA formularen mandatariak kinielak diseinatu, laukiak bete eta sariak banatzen dituzte. Gurean, otsailaren 13ko zenbakia azpimarratuko dute giza eskubideen nazioarteko egunean, Garzonek eta beste enparauek ahalbidetzen duten tortura seinalatuz eta 16 gazteren lekuak beteko dira, Bakearen Nobel Sariak gose grebetan ura edatea ere legez kanpo uzteko gai badira ere.